

**JEAN BAPTISTE ELIZANBURUREN
LAU ANDREN BESTA**

Sara, 1991-XII-21

Patri Urkizu

Jaur-andreok, eguerdion denoi!

Jean Baptiste Elizanbururen *lau andren besta* mintzagai harturik, ni bekatari honek... aitorpenarekin hasi beharko nukeelakoan nago.

Argi dezadan zergatia.

Liburu edizioen prestaketetan eguneroko premiak eta abiada azkarregiak bultzaturik, alegia, denbora eskasiaren poderioz aritu izan natzai-zue horrelako lanek eskatzen duten astirik eta patxadarik hartu gabe eta honen ondorioak bistan daude.

Bihoa, bada, bidenabar lantxo honen aitzinsolas gisara ene erruen aitorra, eta aitzaki honekin kapitainaren kanta baten irakurketa lasaiagoa eta zuzenketa buru dezadan.

Koldo Mitxelenak *Liburu sorta zaharberritu baten atarian* (1) zioenez, saratarraren bertsoek ez zuten beren mailari zegokion edizio zuzenik, eta beldur naiz oraindik ere ez duten. Aurten eginiko bi argitaldiek, bai X. Elosegik (2) eginak, bai neronek prestatuak (3) akats bat baino gehiago baitute, oraingo honetan ez natzaizuelarik mintzatuko faltan edo soberan diren bertsoez eta kantez, alegia, bereak balira bezala kontsideratu bertsoez, ez eta idatzi baina ezagutzen ez ditugunez, hau ezinezkoa baita, noski, baizik eta gorago aipatu dudana soil-soilik.

Honetarako kanta beraren zazpi edizio eta zortzi aldaera ezberdin ezarriko ditugu bata bestearen aldamenean hobeto ohar gaitezen, orijinalaren joan-etorriez eta xehetasunez.

(1) K. Mitxelena, *Klasiko Sorta*, Donostia, 1986, 9-19.

(2) X. Elozegi, *J.-B. Elizanburu*, Ikas, Baiona, 1991.

(3) P. Urkizu, *Lapurdi, Baxanabarre eta Zuberoako Bertso eta Kantak, II*, 1545-1900. Etor, Donostia 1991, 413-452. (Aurreantzean LBNZ).

Robert Marichal (4) kritikariak dioen bezala, “une edition est une copie, et qui dit copie dit faute; on commet presque inevitablement des fautes, mêmes lorsqu’on copie un texte imprimé, à plus forte raison lorsqu’on copie un texte manuscrit”.

Alegia, edizio guztiak eta bakoitza kopiak direnez, denak daudela akatsez josiak, eta ezinbesteko hori areagoa gertatzen dela eskuskribuen kasuan.

Honela bada, ondoren aztertuko ditugu zazpi edizio ezberdin eta eskuzkribuaren testuak, alfabetikoki izendatuko ditugularik:

- A. *Almanaca berria* edo *egunaria...*, Lespès, Baiona, 1882, 29-32.
- B. Baionako Euskal Erakustegiko Eskuskribua. P. 258, 14-16. 1885. Doinuarekin.
- C. *Almanak Berria* edo *Ziberouko eta Basa-Nabarreko egunaria*. Garet, Pauben, 1890, 25-28.
- D. *Euskal-Erria*. Donostia, 1897, T. XXXVI, 19-21.
- E. *Gure Herria*. Baiona, 1923. Nehor (J. Barbier) eta C. Dufau-k bildua. Aita Donostiaren harmonizazioarekin.
- F. *Kantu, Kanta, Khantore*. Baiona, 1967. P. Lafitteren edizioa, 223-225.
- G. A.M. Labaien, *Elizanburu, bere bizitza ta lanak. Su vida y obras*. Auñamendi, Zarauz, 1978, 206-208.
- H. X. Elozegi, *J.-B. Elizanburu*. Ikas, Baiona, 1991, 57-56.

Hona bada, kronologikoki ezarriak, aldaerok:

A	B	C	D	E	F	G	H
1882	1885	1890	1897	1923	1967	1978	1991

(4) Robert Marichal, “La critique des textes”, *L’Histoire et ses méthodes*, La Pléiade, 1249.

A

Almanaca Berria

1882

Lau andren besta

1.

Herriko besta bigarreanean,
 Berek dakiten chokho batean,
 Lau andre, bat alharguna, hirur mutchurdin,
 Jarriak itzalean,
 Harri chabal bat belhaunen gainean,
 Hari dire (*bis*) trukean.

2.

Zer duten nuke nik jakin nahi
 Phitcherrarekin bertze jaun hori ;
 Zorroa du biribila, moko meharra,
 Ttente chutik egoki.
 Chahato bat ez othe den nago ni,
 Hampatua (*bis*) ederki ?

3.

Jesus ! oraino zer dut ikhusten ?
 Zer hegal-pean dute gordetzen ?
 Egoitza gocho hortarik, halto burua,
 Chahatoaz trufatzen,
 Bihotzez azkarragoa zeren zen,
 Khuiatchoa (*bis*) hari zen.

4.

Besta delakotz egun herrian,
 Aphaindu dire handi handian,
 Ederki gazteen gisa pampinatuak
 Ez phatchada ttikian,
 Bihotz onez, partidaren erdian,
 Irriz daude (*bis*) lorian.

5.

Handik chimiko, hemendik irri,
 Haurrak bezala jostetan hari ;
 Artean amodiozko begi-kolpe bat
 Hegal-pean denari ;
 Hitz bat erran gogo diote sarri
 Beharrira (*bis*) khuiari.

6.

— « Gezurrik gabe, guazen Maria ;
 « Eman jokoan ezti-etzia ;
 « Hurbil zan untzi beltz hori, detzagun edan
 « Trago bat edo bia ;
 « Bihotza dinat epheltzen hasia.....
 « Haurrak, zuen (*bis*) grazia ! » —

7.

Zahagiaren seme joria,
 Non duk achtiko zorro lodia ?
 Gaizoa, lehen birundan churgatu dautek
 Odolaren erdia !
 Orai hor hago zimur arpegia,
 Kokoriko (*bis*) jarria !

8.

Seira truk dire zazpietarik,
 Tantz orobat bi aldetarik ;
 Erori da chahatua mokoz-iphurdi,
 Nazki odol-husturik ;
 Khuiatchoa hantche dago etzinik,
 Azken hatsa (*bis*) emanik.

9.

Nahiz zarokan azken eskua,
 Mariak zuen hasi gudua :
 — « Truk ! » — « Jo zan ! » — Mariak *chango*,
 Marichumek *hirua*. [Katichak *chaldun*,]
 — « Marimartin, choratu zain burua ?
 « Lauarekin hiruaren kheinua ? » —

10.

— « Ago, Maria, othoi, ichilik !
 « Ez dun ikhusi nere kheinurik ;
 « Ttintta bat edan orduko begiak ñir-ñir,
 « Zer ! ez dun ahalkerik !
 « Edan nezaken azkarren hortarik
 « Gathilua (*bis*) betherik ! » —

11.

— « Bazikinagu, tresna makhurra,
 « Ez dunala, hik, hatsa laburra ;
 « Ez dun, ez, dion bezala, horma churgatuz
 « Biribildu muthurra,
 « Ez eta ere gorritu sudurra
 « Milikatuz (*bis*) elhurra ! » —

12.

— « Apho mutchurdin moko biphila,
 « Zeren ondoan othe habila ?
 « Hatz badun hanken hegian, ikhusiko dun
 « Zembat naizen abila !
 « Chuhur badun, ago, neska chirchila,
 « Ichil-ichil (*bis*) ichila ! » —

13.

Kartak utzirik eta tantoak,
 Hantche zituzten gero saltoak.....
 Bakharrik hiruen kontra zer eginen du
 Marimartin gaizoak !
 Nahiz izan azkar zango bezoak,
 Hartu ditu (*bis*) paloak !..

14.

(AMETSA.)

Besta bigarren egun berean,
 Lau gathu zahar, anjelusean,
 Bat mainguz, hirur saltoka, sorginak puyes !
 Zohatzila bidean,
 Ikhusi ditut nik amets batean,
 Akhelarre (*bis*) gainean.

PIARRES ADAME,

Saratarra.

B

1885

*Lau andren besta**(Amex bat)*

1

Herriko besta bigarreanean,
 Berec dakiten choko batean,
 Lau andre, bat alharguna, hirur mutchurdin,
 Yarriac itzalean,
 Harri chabal bat beihaunen gainean
 Hari dire, hari dire trukean.

2

Zer duten nuke nik yakin nahi
 Pitcherrarekin bertze yaun hori ;
 Zorroa du birila, moko meharra,
 TTente chutik egoki...
 Chahato bat ez othe den nago ni,
 Hampatua, hampatua ederki ?

3

Yesus! oraino zer dut ikusten ?
 Zer hegal-pean dute gordetzen ?
 Egoitza gocho hortarie, halto burna,
 Chahatoaz trufutzen,
 Bihotzez azkarragoa zeren zen,
 Khuiatchoa, khuiatchoa hari zen.

4

Besta delakotz egun herrian
 Aphaindu dire handi-handian ;
 Ederki gaztean gisa pampinatuac
 Ez patchada ttikian,
 Bihotz onez partidaren erdian
 Irriz daude, irriz daude lorian..

5

Iandic chimiko, hemendic irri,
 Haurrac bezala yostetan hari;
 Artean amodiozko begi-kolpe bat
 Hegal-pean den hari;
 Hitz bat erran gogo diote sarri
 Beharrira, beharria khuiari.

6

Gezurric gabe guazen Maria,
 Eman yokoan ezti-etzia;
 Hurbil zan untzi beltz hori, detzagun edan
 Trago bat edo bia;
 Bihotza dinat epheltzen hasia...
 Haurrac zuen, haurrac zuen grazia!

7

Zahagiaren seme yoria,
 Non duk achtiko zorro lodia?
 Gaizoa, leben birundan churgatu dautek
 Odolaren erdia!
 Oray hor hago zimur arpegia
 Kokoriko, kokoriko yarria!

8

Seira truk dire zazpietarie,
 Tantoz orobat bi aldetarie;
 Erori da chahatoa mokoz-iphurdi
 Naski odol-husturic.
 Khuiatchoa hantche dago etzinic,
 Azken hatsa, azken hatsa emanic.

9

Nahiz zarokan azken eskua,
 Mariac zuen hasi gudun:
 Truk, yo zan. Mariac Chango, Katichac Chaldu
 Marichumec hirua:
 • Marimartin, choratu zain burua?
 • Lauarekin biruaren kheinua!

10

• Ago, Maria, othoi ichilic ;
 Ez dun ikhusi nere kheinuric ;
 Ttunta bat edan orduko begiac ñir-ñir,
 Zer ! ez dun ahalkeric ?
 Edan nezaken azkarren hortaric
 Gathilua, gathilua tetheric. •

11

• Bazakinagu, tresna makhurru,
 Ez dunala bik hatsa laburra ;
 Ez dun ez, dion bezala, horma churgatuz :
 Biribildu muthurra,
 Ez eta naski gorritu sudarra.
 Milikatoz, milikatez elhurra ! •

12

• Apho mutchurdin moko biphila,
 Zeren ondoan othe habila !
 Hatz badun hanken hegian ikhusiko dun
 Zembat naizen abila !
 Chuhur badun ago, neska chirtchila,
 Ichil-ichil ichil-ichil, ichila ! •

13

Kartac utziric eta tantoac,
 Hantche zituzten gero saltoac....
 Bakharric hiruen kontra zer eginen du
 Marimartin gaizoac !
 Nahiz izan azkar zango besoac,
 Hartu ditu, hartu ditu paloac !

14

(Ametsa.)

Besta-bigarren egun berean,
 Lau gathu zahar anyelusean,
 Bat mainguz, hirur saltoka, sorginac puyes !
 Zohatzila bidean,
 Ikhusi ditut nik amets batean,
 Akhelarre, akhelarre gainean.

Piarres ADAME.

C

Almanak Berria

1890

Lau andren besta

1.

Herriko besta bigarrenan,
 Berek dakiten chokho batean,
 Lau andre, bat alharguna, hirur mutchurdin,
 Jarriak itzalean,
 Harri chabal bat belhaunen gainean
 Hari dire (*bis*) trukean.

2.

Zer duten nuke nik jakin nahi
 Phitcherrarekin bertze jaun hori;
 Zorroa du biribila, moko meharra,
 Ttente chutik egoki..
 Chahato bat ez othe den nago ni,
 Hampatua (*bis*) ederki?

3.

Jesus! oraino zer dut ikhusten?
 Zer hegal-pean dute gondetzen?
 Egoitza gocho hortarik, halto burua,
 Chahatoaz trufatzen,
 Bihotzez azkarragoa zeren zen,
 Khuintchoa (*bis*) hari zen.

4.

Besta delakotz egun herrian
 Aphaindu dire handi handian.
 Ederki gazteen gisa pampinatua
 Ez phatchada ttikian,
 Bihotz onez, partidaren erdian,
 Irriz daude (*bis*) lorian.

5.

Handik chimiko, hemendik irri,
 Haurrak bezala jostetan hari;
 Artean amodiozko hegi-kolpe bat
 Hegal-pean denari;
 Hitz bat erran gogo diote sarri
 Beharrira (*bis*) khiuari.

6.

—“Gezurrik gabe, guazen Maria;
 “Eman jokoan ezti-eztia:
 “Hurbil zan untzi beltz hori, detzagun edan
 “Trago bat edo bia;
 “Bihotza dinat epheltzen hasia...
 Haurrac, zuen (*bis*) grazia!

7.

Zahagiaren seme joria,
 Non duk achtiko zorro lodia?
 Gaizoa, lehen birundan churgatu dautek
 Odolaren erdia!
 Orai hor dago zimur arpegia,
 Kokoriko (*bis*) jarria!

8.

Seira truk dire zazpietarik,
 Tantzoz orobat bi aldetarik;
 Erori da chahatua mokoz-iphurdi,
 Nazki odol-husturik;
 Khuiatchoa hantche dago etzinic,
 Azken hatsa (*bis*) emanik.

9.

Nahiz zarokan azken eskua,
 Mariak zuen hasi gudua:
 —“Truk!” — “Jo zan!” — Mariak Chango
 Marichumek *hirua*. (Katichac *chaldun*,)
 —“Marimartin, choratu zain burua?
 “Lauarekin hiruaren kheinua?”—

10.

—“Ago, Maria, othoi, ichilik!
 “Ez dun ikhusi nere kheinurik;
 “Ttintta bat edan orduko begiac ñir-ñir,
 “Zer! ez dun ahalkerik?
 “Edan nezaken azkarren hortarik
 “Gathilua (*bis*) betheric.”

11.

—“Bazikinagu, tresna makhurra,
 “Ez dunala, hik, hatsa laburra;
 “Ez dun, ez, dion bezala, horma churgatuz
 “Biribildu muthurra,
 “Ez eta naski gorritu sudurra.
 “Milikatuz (*bis*) elhurra!”—

12.

—“Apho mutchurdin moko biphila,
 “Zeren ondoan othe habila?
 “Hatz badun hanken hegian, ikhusiko dun
 Zembat naizen abila!
 “Chuhur badun, ago, neska chirchila,
 “Ichil-ichil (*bis*) ichila!”—

13.

Kartak utziric eta tantoak.
 Hantche zituzten gero saltoak...
 Bakharric hiruen kontra zer eginen du
 Marimartin gaizoak!
 Nahiz izan azkar zango bestoak,
 Hartu ditu, (*bis*) paloak!

14.

(Ametsa)

Besta-bigarren egun berean.
 Lau gathu zahar anyelusean.
 Bat mainguz, hirur: saltoka, sorginak puyes!
 Zohatzila bidean.
 Ikhusi ditut nik amets batean.

D

Euskal-Erria

1897

Lau andren besta

(Amex bat)

Er-ri-ko besta bi-ga--re-ne-an

Be-rek da-ki-ten cho-ko ba-te-an

Lau an-dre bat al-ar-gu-na-i-pur

mut-chur-din yar-ri-ak i-lza-le-an,

ar-ri-cha-bel bat bel-au-nen gai-ne-an

a-ri-di-re a-ri-di-be tru-ke-an

Zer duten nuke nik yakin nai
 Pitcherrarekin bertze yaun ori;
 Zorroa du biribila, moko mearra tente chutik egoki
 Chaato bat ez ote den nago ni
 Anpatua, anpatua ederki.

Jesus! oraino zer dut ikusten?
 Zer egal-pean dute gordetzen?
 Egoitza gocho ortarik, alto burua, chaatoaz trufatzen,
 Biotzez azkarragoa zeren zen
 Kuiatchoa, kuiatchoa ari zen.

Besta delakotz egun errian,
 Apaindu dire andi andian
 Ederki gaztean gisa panpinatuak, ez patchada ikian,
 Biotz onez partidaren erdian,
 Irriz daude, irriz daude lorian.

Andik chimiko, emendik irri,
 Aurra bezala yostetan ari;
 Artean amodiozko begi kolpe bat egalpean den ari...
 Itz bat erran gogo diot sarri,
 Bearrira, bearrira kuiari.

Gezurrik gabe guazen Maria,
 Eman yokoan ezti ezti;
 Urbil-zan untzi beltz ori detzagun edan trago bat edo bia;
 Biotza dinat epeltzen asia...
 Aurra, zuen, aurra, zuen grazia!

Zaagiaren seme zoria,
 Nunduk ahtiko zorro lodia?
 Gaizoa, leen birundan churgatu dautek odolaren erdia!
 Orai or ago zimur arpegia,
 Kokoriko, kokoriko yarria!...

Seira truk dire zazpietarik
 Tantzoz orobat bi aldetarik
 Erori da chaatoa mokoz ipurdi, naski odol usturik?
 Kuiatchoa antche dago etzinik,
 Azken atsa, azken atsa cinanik!

Naiz zarokan azken eskua,
 Mariak zuen asi azken gudua:
 Truk! yo zan! Mariak chango, Katichak chaldun, Marichumek
 Marimartin, choratu zain burua? [irua!
 Lauarekin iruaren keinua!

Ago, Maria, otoi, ichilik,
 Ez dun ikusi nere keinurik!
 Tinta batedan orduko begiak *nir-nir*, zer ez dun aalkerik?
 Edan nezaken azkarren ortarik
 Gatilua, gatilua beterik!

Bazakinagu, tresna makurra,
 Ez dunala ik axa laburra;
 Ez dun ez, dion bezala, orma churgatuz biribildu muturra
 Ez eta, naski, gorritu sudurra
 Milikatuz, milikatuz elurra!...

Apo mutchurdin moko bipila,
 Zeren ondoan ote abila?
 Atz badun anken egian, ikusi dun zenbat naizen abila;
 Chuur badun ago, neska chirchila,
 Ichil, ichil, ichil, ichil, ichila!

Kartak utzirik eta tantoak,
 Antche zituzten gero saltoak;
 Bakarrik iruen kontra zer eginen du Marimartin gaizoak?
 Naiz izan azkar zango besoak,
 Artu ditu, artu ditu paloak!

Besta bigarren egun berean,
 Lau gatu zaar, anyelusean,
 Bat mainguz, irur saltoka sorginak puias
 Zoatzila bidean,
 Ikusi ditut niķ amex batean,
 Akelarre, akelarre gainean!...

E

Gure Herria

1923

Herriko besta biharamuna

I

Iragan besta biharamunean,
Berek dakiten choko batean,
Lau andre, hirur mutchurdir, bat alarguna,
(Jariak itzalean,
Harri chabal bat belhaunen gainean,
Hari ziren, hari ziren trukean.

II

Zer othe duten nuke jakin nahi
Pitcharrarekin bertze jaun hori :
Zorroa du biribila, moko mehea, tente chutik
Chahako bat othe den nago ni (egoki,
Hampatua, hampatua ederki.

III

Jes ! oraino zer dut bada ikhusten ?
Zer da, hegalpean dute gordetzen ?
Egoitza gocho hortarik, burua alto, chahakoaz
Bihotzez azkarrago zeren den, (trufatzen
Kuiattoa, kuiattoa ari zen.

IV

Handikan chimiko, herfendik irri,
Haur batzu bezala jostetan ari ;
Gogotik ematen dute begi kolpe bat hegal pean
Hitz bat erran gogo diote sarri (denari ;
Beharritat, beharritat kuiari.

V

Seira truk dirade zazpietarik,
Tantoz ere bardin bi aldetarik.
Chahakoa eroria, mokoz iphurdi naski odol
Kuiattoa han dagoke-etzanik (husturik ?
Asken atza, azken hatsa emanik.

VI

« Gezurrik gabe goazen, Maria ;
Eman ba jokoan ezti ezta ;
Hurbil zan unti beltz hori, dezagun edan trago
Bihotza dinat epheltzen hasia. » (bat edo bia.
Harek zuen, harek zuen grazia !...

VII

Zahagiaren seme joria,
Nun duk achuko zorro lodia ?
Gaizoa, lehen birundan zurgatu dautek odolaren
Orai or ago, zimurrik arpegia, (erdia !
Kokoriko, kokoriko jarria.

VIII

Nahiz zeraukan azken eskua,
Mariak zuen hasi gudua :
« Truk ! -- Jozan ! » Mariak chango, Katichak
(chaldun, Marichumec hirua.
« Mari Martin, choratu zain burua,
Lauarekin hiruren kheinua ! »

IX

-- « Ago, Maria, othoi, ichilik,
Ez dun ikhusi nerz keinurik.
Chorta bat edanez geroz begiak nirnir ; zer ez
(dun ahakerik ?
Edan hezake azkarren-hortarik,
Gatilua, gatilua betherik ! »

X

-- « Bazakinagu, tresna makhurra,
Ezdunala hik hatsa laburra.
Ez dun, ez, dionan bezala, horma churgatuz
(biribildu muthurra
Ez eta ere gorritu sudurra,
Milikatuz, milikatuz elhurra !...

XI

-- « Apho mutchurdir moko biphila,
Zeren ondoan othe habila ?
Hatz badun gibel aldean, ikhusiko dun zembat
(naizen abila,
Chuhur badun, ago neska chirtchila,
Ichil, ichil, ichil, ichil, ichila !...

XII

Kartak utzirik, eza tantoak,
Han zituzten han gero saltoak.
Bakharrik hiruen kontra, zer eginen du hor
(Mari-Martin gaizoak ?
Nahiz izan azkar zango besoak,
Hartu ditu, hartu ditu paloak.

XIII

Herriko besta arrats aphalian
Lau gatu zahar anjelusian,
Bat maingu, hirur saltoka, sorginak puies ! zo-
(hartzila bidian,
Nik ikhusi ditut amets batian,
Akhelarre, akhelarre gainian.

F

Kantu, kanta, khantore

1967

Iragan besta biharamunian

1

Iragan besta biharamunian,
Berek dakiten xoko batian.
Lau andre hirur mutxurdin, bat alarguna, jarriak itzalian,
Harri xabal bat belhaunen gainian.
Hari ziren, hari ziren trukian.

2

Zer othe duten nik jakin nahi
Pitxarrarekin bertze jaun hori ;
Zorroa du biribila, moko mehea, tente xutik egoiki,
Xahako bat othe den nago ni,
Hanpatua, hanpatua ederki.

3

Jes ! nik oraino zer dut ikhusten ?
Zer hegalpean dute gordetzen ?
Egoitza goxo hortarik, burua alto, xahakoaz trufatzen,
Bihotzez azkarrago zeren den,
Kuiattoa, kuiattoa ari zen.

4

Handik ximiko, hemendik irri,
Haurrak bezala jostetan ari ;
Gogotik ematen dute begi kolpe bat hegal pean denari ;
Hitz bat erran gogo diote sarri
Beharirat, beharirat kuiari.

5

Seira truk dira zazpietarik,
Tantoz orobat bi aldetarik.
Xahakoa eroria da, mokoaz iphurdi, naski odol husturik ;
Kuiattoa han dago etzanik,
Azken hatsa, azken hatsa emanik.

6

Gezurrik gabe goazen, Maria ;
Eman jokoan ezti ezti ;
Hurbil zan untxi beltz hori, dezagun edan trago bat edo bia,
Bihotza dinat epheltzen hasia ;
Harek zuen, harek zuen grazia.

7

Zahagiaren seme joria,
Nun duk axtiko zorro lodia ?
Gaizoa, lehen birundan zurgatu dautek odolaren erdia !
Orai hor ago zimurrik arpegia,
Kokoriko, kokoriko jarria.

8

Nahiz zeraukan azken eskua,
 Mariak zuen hasi gudua :
 Truk. — Jo zan. — Mariak xango, Katixak xaldun, Marixumek hirua.
 Mari-Martin, xoratu zain burua,
 Lauarekin hiruaren keinua !

9

Ago, Maria, othoi, ixilik,
 Ez dun ikhusi nere keinurik.
 Xorta bat edanez geroz, begiak ñirnir; zer ez dun ahalkerik ?
 Edan nezaken azkarren hortarik,
 Gatilua, gatilua betherik.

10

Bazakinagu, tresna makurra,
 Ezdunala hik hatsa laburra.
 Ez dun, ez, dionan bezala, horma xurgatuz biribildu muthurra,
 Ez eta ere gorritu sudurra,
 Milikatuz, milikatuz elhurra.

11

Apho mutxurdin moko biphila,
 Zeren ondoan othe habila ?
 Hatz badun gibel aldean, ikhusiko dun zenbat naizen abila ;
 Xuhur badun, ago, neska xirtxila,
 ixil, ixil, ixil, ixil, ixila.

12

Kartak utzirik, eta tantoak,
 Han zituzten han gero saltoak.
 Bakharrik hiruen kontra, zer eginen du Mari-Martin gaizoak ?
 Nahiz izan azkar zango besoak,
 Hartu ditu, hartu ditu paloak.

13

Herriko besta arrats aphanian
 Lau gatu zahar anjelusian,
 Bat maingu, hirur saltoka, sorginak pujes ! zohatzila bidian,
 Nik ikhusi ditut amets batian,
 Akhelarre, akhelarre gainian.

ELISSAMBURU.

G

A.M. Labaien

1978

Lau andren besta (Amets bat)

Igan besta biharamunean,
Berek dakiten xoko batean,
Lau andre, hirur mutxurdirin, bat alarguna, yarririk
[itzalean.

—Harri xabal bat belhaunen gainean—
Hari ziren, hari ziren trukean.

Zer othe-duten nik yakin nahi
Pitxarrarekin bertze jaun hori;
Zorroa du biribila, moko meharra, tente xutik egoki...
Xahatto bat othe-den nago ni
Hanpatua, hanpatua ederki.

Jesus! oraino zer dut ikhusten?
Zer hegalpean dute gordetzen?
Egoitza goxo hortarik, burua alto, xahattoaz
[trufatzen

—Bihotzez azkarragoa zeren den—
Kuiattoa, kuiattoa ari zen.

Besta delakotz egun herrian
Aphaindu dire handi-handian
Ederki gaztean gisa pampinatuak ez patxada
[ttikian...

Bihotz onez partidaren erdian
Irriz daude, irriz daude loriantan.

Handik ximiko, hemendik irri,
Haurrak bezala yostetan ari;
Tartean amodiozko begi-kolpe bat hegalpean
[denari...

Hitz bat erran gogo diote sarri
Beharrirat beharrirat kuiari.

—Gezurrik gabe goazen, Maria;
Eman yokoan ezti-eztia...
Hurbil zan untzi beltz hori dezagun edan trago bat
[edo bia;

Bihotza dinat epheltzen hasia;
Harek zuen harek zuen grazia.

Zahagiaren seme yoria,
Nun duk aixtiko zorro lodia?
Gaizoa! lehen-birundan xurgatu dautek odolaren
[erdia

Orai hor ago, zimum arpegia,
Kokoriko, kokoriko yarria!

Seira truk dire zazpietarik
Tantoz orobat bi aldetarik...
Ereri da xahakoa, mokoz-ipurdi naski odol usturik;
Kuiattoa hanxe dago etzinik
Azken-atsa, azken-atsa emanik.

Nahiz zeraukan azken-eskua,
Mariak zuen hasi gudua:
-Truk. -Yo zan... Mariak xango, Katixak zaldun,
[Marixumek hirua...
-Marimartin, xoratu zain burua!
Lauarekin hiruaren keinua!

-Ago, Maria, othoi, ixilik!
Ez dun ikusi nere keinurik.
Xorta bat edanez-geroz, begiak ñir-ñir; zer? ez dun
[ahalkerik?

Edan hezaken azkar hortarik
Gatilua, gatilua beterik.

-Bazakinagu, tresna makurra,
Ezdunala hik hatsa laburra.
Ez dun ez, dionan bezala horma xurgatuz biribildu
[muturra!

Ez eta naski gorritu sudurra
Milikatuz, milikatuz elhurra.

-Apno, mutxurdin, moko-bipila!
Zeren ondoan othe-habila?
Hatz badun gibel-aldean ikusiko dun zenbat naizen
[abila;

Xuhur badun, ago neska xirtxila,
Ixil, ixil, ixil, ixil, ixila!!

Kartak utzirik eta tantoak
Hantxe zituzten gero saltoak...
Bakarrik hiruen kontra zer egingen du Marimartin
[gaizoak?
Nahiz izan azkar zango-besoak
Hartu ditu, hartu ditu paloak.

(Ametza)

Herriko besta-arrats-aphalean (Besta bigarren egun
[berean)
Lau gathu zahar, anjelusean,
Bat maingu, hirur saltoka, sorgiñak puyes! zohazila
[bidean
Ikusi ditut nik amets batean
Akhelarre, akelarre-gainean.

H

X. Elozegi

1991

*Lau andren besta
(Amets bat)*

- 1 -

Herriko besta bigarreanean,
Berek dakiten xoko batean,
Lau andre, bat alarguna, hirur mutxurdin,
jarriak itzalean,
Harri xabal bat belauen gainean.
Ari dire, ari dire trukean.

- 2 -

Zer duten nuke nik jakin nahi
Pitxarrarekin bertze jaun hori ;
Zorroa du biribila, moko meharra,
ttentte xutik egoki...
Xahato bat, ez ote den nago ni
Hanpatua, hanpatua ederki.

- 3 -

Jesus ! Oraino zer dut ikusten ?
Zer hegalpean dute gordetzen ?...
Egoitza goxo hortarik, halfo burua,
xahatoaz trufatzen,
Bihotzez azkarragoa zeren den
Kuiatxoa, kuiatxoa ari zen !

- 4 -

Besta delakotz egun herrian,
Apaindu dire handi-handian,
Ederki gaztean gisa panpinatuak,
ez patxada ttikian,
Bihotz onez partidaren erdian,
Irriz daude, irriz daude lorian !

- 5 -

Handik ximiko, hemendik irri,
Haurrak bezala jostetan ari,
Artean amodiozko begi kolpe bat
hegalpean den hari...
Hitz bat erran gogo diote sarri,
Beharrira, beharrira kuiari.

- 6 -

«Gezurrik gabe guazen Maria,
Eman jokoan ezti-eztia ;
Hurbil zan untzi beltz hori ditzagun edan
trago bat edo bia ;
Bihotza dinat epeltzen hasia...
Haurrak zuen, haurrak zuen grazia !»

- 7 -

«Zahagiaren seme joria,
Nun duk axtiko zorro lodia ?
Gazoa, lehen birundan xurgatu dautek
odolaren erdia !
Orai hor hago zimur arpegia,
Kokoriko, kokoriko jarria...»

- 8 -

Seira truk dire zazpietarik,
Tantoz orobat bi aidetarik.
Erori da xahatoa, moko-ipurdi,
naski odol husturik ?
Kuiatxo hantxe dago etzanik
Azken hatsa, azken hatsa emanik !...

- 9 -

Nahiz zarokan azken eskua,
Mariak zuen hasi gudua :
«Truk, jo zan !» Mariak xango, Katixak xaldun,
Marixunek hirua !
«Marimartin, xoratu zain burua ?
Launarekin hiruraren keinua !...»

- 10 -

«Ago, Maria, otoi ixilik
Ez dun ikusi nere keinurik !
Ttotta bat edan orduko begiak ñir-ñir,
zer ! ez dun ahalkerik ?»
«Edan nezaken azkarren hortarik
Gatilua, gatilua beterik !»

- 11 -

«Bazakinagu, tresna makurra,
Ez dunala hik hatsa laburra ;
Ez dun ez, dion bezala, horma xurgatuz
biribildu muturra,
Ez eta naski gorritu sudurra,
Milikatuz, milikatuz elurra !...»

- 12 -

«Apo mutxurdirin moko bipila,
Zeren ondoan ote habila ?
Hatz badun hanken hegian, ikusiko dun
zenbat naizen abila ;
Xuhur badun ago, neska xirtxila,
Ixil, ixil, ixil, ixil, ixila !»...

- 13 -

Kartak utzirik eta tantoak
Hantxe zituzten gero saltoak ;
Bakarrik hiruren kontra zer eginen du
Marimartin gazoak ?
Nahiz izan azkar zango-besoak
Hartu ditu, hartu ditu paloak.


14 - (Ametsa)

Besta bigarren egun berean,
Lau gatu zahar, Anjelusean,
Bat mainguz, hirur saltoka, sorginak puyes !
zoatzila bidean,
Ikusi ditut nik amets batean,
Akalarre, akalarre gainean !...

Kontutan hartzen badugu Jean Baptiste duela ehun urte hil zela, ohar gaitezke berehala badaukagula bizi zelarik berak idatzitako edota onarturikako eskuskribu bat eta bi argitaraldi, hirurak ezberdinak, zaharrena, antza, 1882.ean Baionan inprimatua dena, eta noski, honek ezagutzen ez dugun beste eskuskribu bat suposatuko luke.

Nabarmena da D-k A-rekiko duen menpekotasuna, alegia, Donostia-ko *Euskal-Erria* aldizkarian argitaratua garbi dago Baionako *Almanaka*-tik hartua dela ortografia aldaturik; hala nola F-k E-kiko duen zorra, hots, Lafittek Barbierrekiko. Azken honetan egilearen testua herri testu bilakatu, denboraren poderioz, Barbierrek bildu zuenerako, bertso bat galdua dauka bidean, alegia, 4. estrofa, eta lekuz aldatua du 8.a, 5.era iragan baita.

Nondikako garbia gure ustez, hau da, etorkien gora-behera honelakoxea litzateke: $A > D$; $E > F$; eta $B > H$. Besteak gonbaratuz *stemma*, leinuru zuhaitz honetara iritsiko ginateke, dena den, proposatzen dudana hipotesi jokotzat hartu beharko genuke, besterik gabe.



Utz dezagun, ordea, gai hau eta erakuts ditzagun zein liratekeen gure irizpideak edizio kritiko baterako, arazoak xehekiro aztertuz.

I. TITULUA

A eta C-n ageri dena. Beraz, *lau andren besta*. Besterik gabe. Hala (Ametsa) ez genuke errepikatu behar, eta 79. bertsoleerroaren gainean ipintzeko utziko genuke, azken ahapaldiko irudiak ez baitu aurrekoarekin ikusteko hain garrantzi handirik non buruan ipiniko genukeen, atzekoaldean egoteko, aldiz, bai.

II. ZENBAKIAK

Bertsoak zenbatzerakoan hautatuko nukeen formula, nor bere kope-tekoak eta aukera estetikoak, Martin de Riquer-ek trobadoreei buruz (5) eginiko lanetan darabilen irizpidea litzateke. Alegia, bertso bakoitzaren hasieran eta ezkerretatik zenbaki erromano bat ezartzea, beraz, LBNZ-n bezalaxe. Hots, Barbierrek bezala, baina aldaketa xume batekin ahapaldi-ko gainpartetik honen lehen bertsoleerroaren ezkerretara eramanez.

III. ORTOGRAFIA, MORFOLOGIA ETA HIZTEGI ALDAERAK

III.1. Puntuazio ikurrak

Marraren erabilera. Kendu egingo nuke *hegal-pean* hitzetik eta loturik emango atzizkia FGH-n bezala, egungo joerari jarraikiz. Mantendu egingo nuke, ordea, hitz elkartu zenbaiten kasuan LEFen proposamenen arabera. Hots: *begi-kolpe*, *ezti-eztia*, *ñir-ñir*, *odol-husturik* (hasperenta-suna mantentzearen). Baina, *mokoz iphurdi*, gabe.

Halaber, elkarrizketa guztien hasieran marraren erabiltzeari, “komi-lei”, kakotxoei, hobetsiko nioke. Beraz, delako komilak elkarrizketetan soberan daude funtzio hori bera marrek betetzen dutenez. Kakotxoan erabilera mugatu eginen nuke elisioetara, hots, bokalen baten jatea adierazteko, adibidez: *t'erdiak*.

Maiuskularen, hitz larrien erabilera frantses ohiturari jarraikiz, bertsoleerro hasiera guztietara hedatuko nuke. *Anjelus* hitzaean A eta C-n bezalaxe, hots, minuskula hobetsiko nuke, B-ren erabileraren aurrean.

Kurtsiba deitua C-n bakarrik ageri da, hitz zenbait azpimarratzeko eta bereizteko, adibidez, *xango*, *xaldun* eta *hirua*. Gaur egungo joerari jarraikiz C-ren proposamena onartuko genuke.

III.2. Bokalkontsonantez

F-ko joera “herrikoi”, fonetika zaleari gaitzesten diogu, eta beraz, itxiera gabe idaztearen alde gaude, hots, “ea” eta ez “ia”. Hala: *bigarrenean*, *batean*, *itzalean...*, eta ez *bigarrenian*, *batian*, *itzalian...*

(5) Martín de Riquer, *Los trovadores, Historia Literaria y textos*, Ariel, Barcelona, 1989.

Kontsonante hasperendunak mantentzearen alde gaude, euskalkia-
ren nortasuna eta berezitasuna adierazten baitute.

Hala: *akhelarre* (ez *akhalarre*), *alharguna*, *aphaindu*, *apho*, *bakharrik*,
belhaun, *biphila*, *elhurra*, *epheldu*, *gathu*, *hari*, *ikhusten*, *iphurdi*, *kheinu*,
khuia, *makhurra*, *muthurra*. *Phatxada*, *phitxerra* eta *xokho*-ren kasuetan
C-k bakarrik ematen dituen ez hasperendun gisara gabe agertuko nituzke.

Kontsonante txistukariei buruz esan behar dugu ondoko sistema
mantentzen zutela Elizanburuk eta XIX. mendeko beste idazle lapurtarrek:

Txistukariak	Igurzkari	Ahoscabeak	Afrikatu	Ahosk.
Bizkar-hobietakoak	s	«z»	ts	«tz»
Hortz-hobietakoak	ś	«s»	tś	«x»
Sabaikoak	š	«ch»	tš	«tch»

Beraz, oraingo konbentzioetara iragaiteko soilik «ch» zena «x» beza-
la eman, eta «x» zena «ts» berridaztea besterik ez dago. Hala: *choko* >
xoko, *chabal* > *xabal*, *haxa* > *hatsa*, *chirtchila* > *xirtxila*...

Bi kasu berezitan zuzenketak ere onartuko genituzke, alegia «z»
delakoa «s» bezala idaztea: *bezoak* > *besoak*; eta *nazki* > *naski*, B-n
bezala. Zer adieraz diezagukete aldaerok, hala nola *adizkide* (6) irakur-
tzeak? Seguruena, Hernan Urrutiak eta beste ikerleek (7) diotena, alegia,
XX. mendean ematen den joera nagusiaren hasiera, hots, *s/ś*, «z»/«s»
bikotearen bereizketaren galtzearena, gehienetan hortz-hobietakoa egite-
ko jaidura gailentzen delarik.

Belare igurzkari ahoskabeari dagokionez, alegia /x/ fonemaz, grafiaz
«y» eta «j» agertzen denari buruz, CEFH-n bezala idaztearen alde gaude-
la esan behar, hots, bigarrena gogokoago dugula, hau da, *jota*.

III. Aditz aldaerak

1. *etzin/etzan*. Lehen forma ABCDG-n ageri da, eta bigarrena EFH-n.
Badirudi biak batera ageri daitezkeela, edota aldaera huts direla, hala
ematen zelarik ere jada XVII. mendean bigarren partean, Urteren
hiztegiak (8) adierazten digun bezala: *etzatea*, *etzatzea*, *etzitea*.

(6) Piarres Adame, "Hiltzen naizen egunean adizkiden bilkhura", *Almanaca Berria*
edo *Egunaria*, Lespès, Baiona, 1881, 35.

(7) Hernan Urrutia, et. a., *Fonética Vasca, Las sibilantes en los dialectos orientales*.
Universidad de Deusto, Bilbao, 1991, 328.

(8) Pierre D'Urteren *Hiztegia*, Londres 1715, P. Urkizuren edizioa, Mundaiz, Donostia,
1989, T. I, 224.

2. *dire/ziren*. Lehen ABCDH-n dugun bezala, bigarrena EFG-n ageri zaigu. Ekintza orainaldian edo iraganean aurkezteak badu garrantzi-rik gure idurirako mementotasuna azpimarratzeko baitarabila egileak oraina, eta ekintza lehenean emateak gertaera urrundik ikustea baillizateke indarbizitasuna galduz. Beraz, *dire*-kin gelditzen gara.

3. *detzagun/ditzagun/dezagun*. Lehenaren alde agertzen gara, A, B eta C-n azaltzen baita, eta beste aldaerak “zuzenketa” okerrak bezala har ditzakegu; noski, *detzagun* aldaera Urterengan (9) ere topa dezakegu.

4. *zarokan/zeraukan*. Gauza bera derrakegu bikote honetaz, hots, ABCD eta H-n bezala eta ez EFG-n ageri denaren arabera. Ithurryk (10) bere gramatikan biak jasotzen dizkigu.

5. *guazen/goazen*. Honi buruz auereko punduaz genioena diogu, alegia, lehenari hobesten diogula, bigarrena zuzenketatzat jotzen dugularik.

6. *bazakinagu/bazikinagu*. Kasu honetan bigarren aldaera C-n baka-rrik ematen da, eta kontutan harturik edizio horren egileak hartzen duen arreta ez dezakegu har akats bezala, baizik eta edo asimilazio fenomeno gisara, berdintze aurrerakoi moduan, edota *bazeakinagu* > *baziakinagu* > *bazikinagu* bilakaeraren ondorioztat, Urtek (11) horren ordaina bezala, *bazeakigun* aldaera ematen digu.

III.4. Hiztegi aldaerak

1. *besta bigarrena/besta biharamuna*. Ez dira, noski, biak esan nahi bereko, lehenak bigarren igandea adierazten duen bitartean, bigarrena besta ondorena, hurrengo lehen eguna baita. Lehenari hobesten diogu, silaba kopurua ere tartean delarik, arrazoi gisa.

2. *p(h)itxerra/pitxarra*. Hitz beraren aldaerak izan arren, ABC-n lehen ageri baita berauxeri hobetsi behar. *Xahato* eta *khuia* rekin ontzi, txarro motak ematen dizkigu egileak, ez delarik nahasi behar, *pitxarra pit(t)arra* hitzarekin, hau nere herri-an, Lezon alegia, sagardo mota bat adierazteko erabiltzen baitzen.

3. *xahato/xahatto/xahako*. Hirurak agertzen zaizkigu, eta hirurak ditugu, noski, *zahagiaren semeak*, baina ABCD eta F-n ageri den lehenari hobesten diogu. Bigarren aldaerak bi ttipierazle daramatza, alegia, bata hasierako txistukaria sabaikotuz, eta bestea horzkaria bustiz.

(9) Aip. Lib., T. I, 224.

(10) Aip. Lib., T. I, 371.

(11) P. d'Urte, *Grammaire cantabrique basque*, 1712, W. Websterren edizioa, Bagnères-de-Bigorre, 1900, 234.

4. *tiintta/ttotta/xorta*. Lehen aldaera ABC-n ageri den bezala, bigarrena H-n bakarrik eta hirugarrena EFG-n ageri dira. Lehena Lhanderen (12) ustez gaztelaniazko *tinta* hitzetik dator, *ttotta*, aldiz, *xorta*-ren ttipie-razletzat jotzen du. Azkuek (13) bere aldetik, lehena *ttinka* bitzaren aldaeratzat dauka, *ttotta* hitzak gipuzkeraz agardentearen esanahia duen bitartean.

5. *Ez eta, naski/Ez eta ere*. Esamolde honen lehen aldaera ABDEH-ko testuetan ageri da eta bigarrena CFG-n. Kasu bitxia da hau zeren aldaeretan ez doaz C-koak inoiz bat F eta G-kin. Lehena-ri ematen diogu aukera, daukagun eskuzkribuan ere halaxe baitago, *naski*, komen artean ematen digularik.

III.5. Hitz maileguak

Horrelakotzat jo behar ditugu, garbi dagoenez etorkia, *palo*, *salto*, *halto*, *eta pujes*. Honek adierazten digu, lapurtarraren baitan oso sustraiturik zeudela gaztelaniatik harturiko zenbait euskal hitz, kritikari guztiak bat datozelarik, halere, Elizanburuk zerabilen hizkera xit garbia zela. *Pujes* hitzaren kasuan gainera (< *pués*) hitzaren gramatika kategoriaren aldaera eman da, moduzko aditzondo izatetik izenondo izatera pasatzen baita, esanahia halaberean aldatzen zaiolarik, orain mespretxua eta izugarritasuna adierazten baitu, hala, *sorginak pujes!*

* * *

Aldaeretako hizkera arazo eta berezitasun zenbait komentatu ditugunez lot akigun orain literaturazko zenbait arlori.

Lau andren besta, hamalau bertsoz ondutako kanta herrikoia dugu, 'chanson satirique' dio Barbierren aldaerak, XIX. mende bukaeraldean, zehatzago 1882.urte inguruan Jean Baptiste Elizanburuk sortua. Xoko batean aurkezten dizkigu lau andre, bestan, kartaketan, edanean, berriketetan eta dantzan, ohiturazko irudi honek akelarre batean ametsarazten diolarik poetari.

Bertsoen moldea tradizio zaharrei atxikia da, esan nahi dugu trobadoreen konbinaketaren ildotik doala, alegia, XII-XIII.mendeko Guillen de Peitieu, Salh d'Escola edota Guilhem Figueira baten *sirventes* deitu-en moduak bereganatzen dituela, bertso luze eta laburrak nahasiz eta horrela irri, ziri, kitzika eta dantza mugimendua kopiatuz. Gure kontatze

(12) P. Lhande, *Dictionnaire basque-français*, Paris, 1926, 993.

(13) R.M. Azkue, *Diccionario vasco-español-francés*, Bilbao, 1905-1906, T. II, 302.

moduaren arabera estrofak seiko nahasiak dira hots, 10A, 10A, 13-, 7a, 11A, 11A egiturakoak, bost puntu berdindunak, hirugarren bertsoerroataske gelditzen delarik. Konbinaketa antzekorik ere aurki daiteke euskal bertso gintzan, honek bere berezitasunak dituen arren. Beste kontatze modua bosteko ahapaldiak eginez litzateke, orduan, bertsoerroatas guztiek puntu bera luketelarik, hau da: 10A, 10A, 20A, 11A, 11A. Ez da harrigarri, bada, zenbait aldaeratan, simetria handitu nahi izatea eta lehen bi bertsoerroatas hamaika silabadun egitea, berriki Haritschelhar irakasle jaunak kontatu eta kantatu didan bezala.

Lehen bost bertsoetan poetak andreen deskripzioa ematen digu: Maria, Katixa, Marixume eta Marimartin. Trukean ari dira, apain-apain jantzirik, panpinak bailirean.

Panpinen irudi hau ez da berria, euskal bertsoen tradizioan aurki baitezakegu, hala Robin poeta donibandarrak XVIII.mendearen *Andren Aphainduraz* mintzo zitzaigularik honelaxe aurkezten baitzizkigun garaiko gazteñoak:

“Hitz batez, dituztenean
Zapata gonak soinean,
Baionako panpinak diduri
Ditutzula aitzinean” (14).

Baionako panpinak, *Donibaneko panpina berriak* (15), lirudikete ere Sara edo Ezpeletako atsoak festa egunean, zeren badakigun azken honetan izan zela bake-epaile, eta ikusten badugu 1880.etik aitzinera armada utzirik Sarako Lekuederra etxean kokatu zela, menderdia pasatxoa zuelarik, begi irritsuz ikuskatuko eta entzungo zituen andere haien solasak.

Horrela, bada, seigarren bertsoan entzuten ditu andreen elkarrizketak pitxerra eskatzen diotelarik elkarri, zein jaun zorrobiribila eta moko meharra bezala deskribatzen zaigun, eta zeini musu eman aitzin dioten:

“Haurra, zuen (bis) grazia!” (16)

Esamolde hori ere tradizioz jatorrenean ediren dezakegu, hala nola Salvat Monhok dioenean *nafar goxoan* titulua duten bertsoetan:

“Ez daut onik egiten
Ez badut edaten
Zure grazian” (17).

(14) LBNZ, 236.

(15) LBNZ, 237.

(16) 36. bertsoerroatas.

(17) LBNZ, 228.

Edota aipatu apez donibandarrak irri dagienean iraultza frantsesa zela eta dantzan ari ziren senperetar atsoez:

“Bazkaiteko denboran, batak bertzeari
Oihu egiten zuten: “Hire graziari!,
Bibe Nazionea!” zioten gogotik,
“Gaztetan eztun orai gu bezalakorik” (18).

Horrela, poetaren begiak eta bertsoak andreen mintzaira bizi-biziaz kutsaturik, jantzirik eta ederturik gelditzen zaizkigu. Khuia, jaun bilakatu zaigu, baina hainbeste poten ondoren aurpegia zimurtu zaio, kokoriko mokoz iphurdi, odola edan diotenean, odol-husturik, erori delarik.

Erretorika legeak, eta prosopopeiaren figura ezin ederkiago menderatzen zituen eta erabiltzen, beti Elizanburuk, harmonia handiz, eta sekulan gehiegikeriarik gabe. Ironia finez, eta ez irrikaitzez, deskribatzen digu atsoetariko bat, adibidez, zeini, naski, ez zaion *gorritu sudurra/milikatuz, milikatuz elhurra!*

Elizanburuk moldaturiko kanta hau *ostatukoak* sailean sar dezakegu, edota *irri-ziri* sailean eta ez dago, utikan, bakarra, bere parekoak baitira *edale eskualdunak* (19) poema, non ikusten ditugun oraingoan lau neska-to arnoedale Ximunen etxian, edota *nafartar edakiak* (20) izeneko kanta, bertan Salvatore arratsaldean Arnegin ikusten ditugula bost neska ardo edaten, Dominikak Mariari dioelarik:

“Haurra, zuen graziari,
Janak behar din edari”.

Jean Baptiste Orpustanentzat (21), azken bertsoak badu ahaidetasunik *laur karbarien eresiarekin*, honen *suite variée*, musika, doinu aldaera bat bezala azter daitekeela eta Oihenarten irri isil, kidetsua, barne-irri karkaitsua bilakatu bide delarik.

Parekorik baldin badu anonimoen artean, ez du, ordea, berdinek egitura oso eta betean, benetan molde ongi egituratuan, zeinek Antonio Maria Labaieni idatzaraziko dioen:

“Nerekiko eta Nikolas Ormaetxeak “Orixek” aitortu zuenez *Besta biharamuna* euskal literaturan itz neurtuz dagon puskarik baliotsunetakoa dugula ustez natzaizute” (22).

(18) LBNZ.

(19) LBNZ, 175.

(20) LBNZ, 186.

(21) J.B. Orpustan “Réalisme rural et fantaisie narrative chez A. Oyhénart: Laur karbarien eresia (“Le récit des quatre cardeuses”) *Memoriae L. Mitxelena Magistri sacrum*. Pars prior, ASJV, 1991, 201-215.

(22) A.M. Labaien, *Elizanburu, bere bizitza ta lanak. Su vida y obras*, Auñamendi, Zarauz, 1978, 178.

Elizanbururen hizkera aratz, argi eta eztiak, honen ongi moldatzeak gogoeta eta sentimendu bai arin bai sakonetara, balio izango dio Lafittek (23) poeten errege bezala kontsidera dezan.

Wentworth Webster ingeles sarartuak ere, "Apuntes Necrológicos" (24) izeneko artikuluan, Elizanbururen ehorzketondoan honen hizkera aratz, zehatz eta mehatza, fineziaz eta dotoreziaz jantzia digu miresten eta goraiatzan.

Eta buka dezagun gure oroitzapen hau bizitzan adiskide kuttuna izan zuen Guilbeau poeta donibandarrak *Eskaldun Desterratua*, poemaren egi-leak Sarako hilerrian erabili solasarekin, garaiko *L'avenir...* (25), egunkari errepublika zaleak frantsesez eman eta guk euskaratuarekin:

"Ene sorterriko eskualdunak, utz nazazue azken agurra eskaintzen benetazko eskualdun bati, ezagutu duten oroengan luzaroko hutsunea eta negarra uzten duen poetari, bera denez gero Eskual Poesiaren arima eta arnasa. Eskual Herriak dolua bere baitan darama, gure poetak jakin baitzuen ezin hobekiago bere historia eta lehena pizten eta biziartzan.

Datozen belaunaldiek irakurri eta miretsiko dute beti goi arnas aratzenez beterikako bere idazlanak, non irudimenak bihotzak kateaturik jakin izan duen edireiten hots, hitz, doinurik eta azenturik eztiak.

Harro sendi adi, Sara, hire baitan ezagutu baitu eguna gure mendeko euskal poetarik handienak eta eguneko literaturgilerik hoberenetakoa den Elizanburuk.

Laudorio zuri, Elizanburu, utzi duzun ildoak sakona izanen baita Eskual Herriarentzat.

Ohore zuri, Elizanburu, zure izena betirako loturik geldituko baita euskararekin eta honek dirauno iraunen baituzu.

Agur zuri, Elizanburu, Eskual Herriaren izenean eta desterru den lur honetan uzten gaituzun adiskide guztien partetik.

Agur... eta ikusi arte!

Amaitu dut. Mila esker zuen arretagatik.

(23) P. Lafitte, *Le Basque et la littérature d'expression basque de Labourd, Basse-Navarre et Soule*. Aitzina, 1941, 52.

(24) *Euskal-Erria*, T. XXV, 10-1-1892, 9-10.

(25) *L'Avenir, journal républicain des Pyrénées et des Landes*. Jeudi, 7 janvier 1892.